



'Galtzaundi' aldizkariaren 30 urteak erakusketa batean jasota

Hiru hamarkada bete dira aldizkariaren O alea argitaratu zenetik, eta erakusketa jarri dute Tolosako Aranburu jauregian // **5**

Tolosako musika taldeak kalera irtengo dira datorren larunbatean

Musikherria egingo dute egun osoko egitarauarekin, herriko hainbat txokotan; Bisuteria orkestra izango da talde gonbidatua // **2**



E. MAIZ

«Orain datorren belaunaldiak ez daki txikiteorik egiten»

MARI JOSE LEUNDA OSTALARIA

40 urtez aritu da ostalaritzan lanean, eta azken 20 urteak Alegiako Erretirodunen tabernan egin ditu; oso maitatua sentitu dela azaldu du // **3**



Anoetan eta Zizurkilen azoka bereziak egin dituzte asteburuan

Anoetan Euskal Jaia ospatu dute asteburuan eta herenegun egin zuten azoka; Zizurkilen 23. azoka berezia egin dute 35 posturekin // **4**

Denboraldi hasierako festa egingo du Billabona futbol taldeak

Bakarrizketa saioa eta 4x4 futbol festa egingo dute, eta taldeen aurkezpenak ere egingo dituzte, hilaren 13tik 17ra // **7**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484



Ostegunean aurkeztu zuten egitasmoaren zazpigarren edizioa, Tolosako Plaza Berrian. IRATI SAIZAR ARTOLA

Musikak Tolosako kaleak hartuko ditu larunbatean

Musikherria egitasmoaren bidez, Tolosako txokoak musikaz jantziko dira; egun osoko egitaraua antolatu dute eta Bisuteria orkestra taldea izango da afalostean

Irati Saizar Artola Herria

Bi urteren ondoren bueltan da Musikherria egitasmoa. Tolosako musika talde gehienak kalean batzen dituen eguna da, eta larunbatean ospatuko da, egun osorako prestatu duten egitarauarekin. Mikel Iraola antolatzailleak esan duenez, gogoz dauke musikariak, eta baita herritarrek ere, musika berriro kalean entzuteko.

Tolosako musika taldeei eta artistei balioa eman eta herriko musika suspertzea ditu helburu Musikherriak, Izarne Iglesias Tolosako Udaleko kultur zinegotziak esan duenez. Izaera bat eman nahian, iruditegi berri bat sortu dute, Iraolaren arabera, «Musikherria bere izaera sortzen ari delako, egonkortzen eta errotzen ari delako». Errotzeaz gain, hazten ere badoala kontatu du, geroz eta jende gehiagok parte hartzen duen eguna delako, hain zuzen. Aurten, esaterako, ohiko dultzainero, txistulari, akordeoi jole, musika eskolako talde eta txarangez gain, Hauspotuz Tolosaldeko Trikitixa Elkarteak eta Isidro Larrañaga musika eskolako hainbat talde txikik parte hartuko dute estreinakoz.

Egun horretarako, gune nagusi bat finkatu dute Lopez Mendi-

zabal plazan. Emanaldi batzuk bertan izango dira goiz zein arratsalde. Aurten, ezin izango dute ohiko moduan bazkaririk egin, baina datorren urterako esperantza badutela aitortu dute antolatzailleak.

Eguna amaitzeko, urtero, herriko taldeez gain, kanpotik beste musika talderen bat ekartzen dute eta, aurten, Bisuteria orkestra taldeak eskainiko du emanaldia Plaza Berrian, 22:30ean. Emanaldi berezia izango da, izan ere, duela gutxi, talde horretako kide zen Javi Area zendu zen eta taldeak omenaldi bat egiteko aprobetxatu nahi du Tolosako kontzertua.

BERRIRO MARTXAN

Azken urte eta erdiak «gazitik» izan duela esan du Iraolak. «Garai zaila izan da denontzat, musika talde askorentzat erabateko geldialdia suposatu duelako, talde askoren jarduna erabat eten da geratu delako». Talde askok etorkizuna kolokan izan dutela ere esan du. «Etorkizuneko belaunaldientzat erreferentziarik ez da izan kalean. Hiru urteko haur batek badaki zer den txaranga bat kalean?».

Musikherria antolatzen ibiltzen direnek ahaleginak egin dituztela esan dute lehenago kale-

ra ateratzeko, «aukerak bazeuden», baina «ateak itxita» topatu dituzte. «Gure herrian, herri giroa sortzeko eragile garrantzitsu bat gara, horregatik pentsatzen dugu antolatzailleok aukerak bazeudela kalera lehenago atera eta bizitako giro goibel horretan ekarpenak egiteko». Iritsi zaie eguna, ordea, eta prest dira musika doinuak Tolosako txoko ezberdinetara eramateko.

EGITARAUA

Urriak 16, larunbata

10:00. Tolosako Dultzaineroak, Giro Arte dultzainero taldea eta Jainekin txaranga. Larramendi, Amaroitz, Berazubi eta San Esteban auzoetan.

11:00. Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasleak, Hauspotuz elkarte-ko trikitilariak, Udaberri fanfarrea, Konponezinak txaranga, Isidro Larrañaga musika eskolako ikasleak. Kalez kale.

12:00. Tolosa Kantari. Alde Zaharreko kaleetan.

12:30. Hodeiertz abesbatza, Isidro Larrañaga akordeoi orkestra, musika taldeak. Lopez Mendizabal plazan.

18:00. Musika taldeak. Euskal Herria plazan.

19:00. Bonberenea txaranga. Alde Zaharreko kaleetan.

22:30. Bisuteria orkestra. Plaza Berrian.



LEKUKOA IBARRANDA

Ostegun arratsaldean iritsi zen Kilometroak jaialdiaren lekukoa Ibarrrara. Uzturpe ikastolako ikasleek bizikletaz ekarri zuten, Ordiziatik. Ikastolako ikasle, irakasle, zein udal ordezkariak harrera egin zieten bizikletan iritsi zirenei plazan. I.S.A.



ERROMERIAREN INGURUAN

Inpernuko Poza XVIII. Jardunaldia egin dute asteburuan Tolosan. Erromeria izan zuten hizketarako gaia, eta goizean, Aiko taldeko Xabin Bikandi eta Patxi Labordak hitzaldia eskaini zuten; arratsaldean, mahai inguru bat egin zuten. L.C.



ZELATUNERA IRTEERA

San Esteban auzoko kultur astearen barruan, Zelatunera mendi irteera egin zuten bertako bizilagunek igandean. 09:00etan abiatuta, Iturriotzera kotxeetan joan ziren lehenik eta handik oinez joan ziren Zelatunera gero. ATARIA



PATXI RENOBLES

«Hutsunea dut, baina gauza pila bat egiteko gogoia ere badut»

MARI JOSE LEUNDA IMAZ OSTALARIA

Ia 40 urte eman ditu ostalaritzan lanean Mari Jose Leundak, eta erretiroa hartu berri du; azken hogeitaz urteetan Alegiako Erretirodunen tabernako ardura izan du

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Mari Jose Leunda Imaz hernialdetarra da jaiotzez, baina urte asko daramatza Alegian bizitzen. 19 urterekin hasi zen ostalaritzan, eta azken hogeitaz urteak Alegiako Erretirodunen tabernan eman ditu lanean. Ateak ixteko garaia iritsi zaio, eta erretiroa hartu du.

Urte asko eta gero, Erretirodunen taberna utzi eta erretiroa hartu duzu. Zer moduz lanik gabeko lehen egunak?

Oraindik egia esan ez naiz gehiegi ohartu. Gauza bakoitza bere lekura eraman, eta bat eta beste nabil. Hutsune handia sentitzen dut. Falta handia. Urte pila bat dira.

Noiz hasi zinen ostalaritzan lanean?

Ia 40 urte dira. Urte pila bat dira, eta beti jendearekin egon naiz. Hutsunea dut, baina gauza pila bat egiteko gogoia ere badut. Lehen egiterik ez neuzkan gauzak egin nahi ditut. Gauza oso sinpleak. Adibidez, lehen tarterik ezin hartu egoten nintzen Altzotik oinez buelta bat egiteko, eta orain pixka bat lasaiago ibiliko naizela pentsatzen dut.

Orain arte egin ezin izan duzuna egiten saiatuko zara, beraz.

Eguna betetzeko gauzak badauzkat. Gurasoak direla, Lizarra aldera ere pare bat egun pasatzera gustura joaten gara,... baina hutsune handia dut.

Hutsunea jendearena da?

Jendearekin harreman oso-oso ona izan dut. Oso maitatua sentitu naiz jendearengatik, eta lagunarte handia egin dut.

Zein ibilbide egin duzu ostalaritzan?

19 urterekin Tolosako Orbelako sukaldean hasi nintzen Izaskuni laguntzen. Gero Aizpuruan aritu nintzen, eta bost urte egin nituen. Ezkondu egin nintzen, eta oso berandu iristen nintzen etxera, eta utzi egin nuen. Haurrak izan eta gero, Alegian bertan Gurian aritu nintzen hamalau urtez lanean. Barra eta sukaldeko lana egiten nuen bertan, eta Alegiakoa ixtean, Tolosan eskaini zidaten lana. Kasualitatez, Tolosan ere Guria tabernan aritu nintzen.

Eta nolatan ireki zenuen Alegiako Erretirodunen taberna?

Herrian bertan Erretirodunen taberna irekitzera animatu beharko nukeela esaten hasi zitzaidan asko. Bertatik bertara izango nuela lana eta... Alokatzeko jarritako zegoen taberna, eta berotu egin ninduten. Pixka bat pentsatu ostean ireki nuen.

Zenbat urte pasa dira ireki zenuenetik?

Hogeitaz urte dira.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso ona. Denetariko jendea dago, baina oso ona. Esan bezala

oso maitatua sentitu naiz eta lagunarte handia egin dut.

Hogeitaz urtetan, ordea, aldatuko zen tabernako giroa.

Aurreneko urteetatik hona asko jaitsi da. Garbi dago. Ohiturak aldatu dira, eta orain pandemiak gainera ipurdiko handia eman du. Nik ezin dut kexatu eta lan handia egin dut, baina bai esan behar da ordu pila bat sartu ditut. Egunero-egunero 10-12 ordu inork ez zizkidan kentzen. Azken aldera agian pixka bat gutxiago, baina lan ordu askoko egunak izan dira.

Lan handia eta ordu asko eskaini beharreko lana da.

Lan handia ez dakit, baina ordu asko bai. Lana ere bai, eta sukaldearekin ere bastante ondo egin dut lana. Ezin dut kexatu.

Barran eta sukaldean egin behar izan duzu. Zer nahiago?

Bietan gustura. Sukaldean ere gustura sentitzen nintzen. Beharra ikusiz gero leku batean edo bestean, berdin zitzaidan.

Nolakoa zen zure egunerokoa.

Igandeetan ezik beste egunetan 08:30erako irekitzen nuen 22:00ak arte, eta igandeetan 09:00etan irekitzen nuen. Ireki eta normalean 19:00ak baino le-

hen ez nintzen ateratzen. Hasi berrian bakar-bakarrik hasi nintzen. Hasieran 00:00ak aldera arte irekitzen froga egin genuen, baina gero 22:00ak arte irekitzea erabaki nuen. Hartara, taberna itxi eta afari bat egitera joateko aukera ere banuen.

Goizetik izaten zen mugimendua?

Bai. Jendeak bazuen ohitura, eta langile jendea pintxo edo ogitar-teko eske etorriz gero, inoiz ez diet esan ezezkorik. Beti izan dut sukalde prest. Edozein garaitan zerbait eskatuz gero, prestutasuna izan behar zenuen egiteko. Ezin zenuen esan sukalde itxita dagoela, eta hori asko zaindu dut.

Txikiteorako joerarik bada?

Lehen txikiteoa askoz ere gehiago egiten zen. Pandemia egoera albo batera utzita, orain datorren belaunaldiak ez daki txikiteorik egiten. Leku batean zentratzen dira, eta bertan egoten dira tragoak hartzen. Lehen sartu eta atera, sartu eta atera beti jende desberdina ibiltzen zen. Lan gehiago egiten genuen. Jendea eserita badago pintxoak ere gutxiago saltzen dira.

Langhieneko egunak herriko festetan?

Bai, baina lan egiteko erraznak beraiek dira. Guztia aurretik antolatuta izaten duzu. Arazoa hori da, aldeztu aurretik prestatu behar duzula, baina jende gehiago ere jartzen duzu lanerako. Lana egiten duzu, baina festak dira, eta jendea kontentu dago eta nire ustez erraz egiten da lana. Urte guzti hauetan festetarako jende oso ona eduki dut. Kuadrilla oso ona tokatu zait. Egunerokoa izan ditudan langileak ere oso onak egokitu zaizkit.

Edarien modak jarraitu behar izan dituzu?

Modak festetan izaten dira. Txupito klaseren bat, likoreren bat edo konbinatu arraroren bat. Gazteei probatzea gustatzen zaie. Gainerakoan betiko edariak eskatzen dira. Gainera, oraingo gazteek ez dakite ardorik edaten. Garagardoa, garagardoa eta garagardoa. Egunerokoa erraz egiten da.

Erraza izan da herritarrek lan egitea?

Bai, eta psikologoaren lana egitea ere tokatu zait. Tragoa hartzera datoz, baina batik bat kontuak esatera. Askotan ez dizu asko axola dituzten arazoak edo sukaldean lana egin beharra daukazula duzu buruan, baina konpainia eginez entzuten ere jakin egin behar da. Hala ere, jendea asko eskertu beharrean aurkitzen naiz.



Artisauek postua jartzeaz gain, beraien eskulanak egiteko tarte aprobatxatu zuten Zizurkilen; ikusleei erakutsi zieten bertatik bertara haien jarduna. L.C.

Azokak egin dituzte Anoetan eta Zizurkilen

Baserritar eta artisauen postuak izan dira nagusi nola Anoetan, hala Zizurkilen; Anoetan, XIV. Euskal Jaiaen barruan antolatu dute azoka

Leyre Carrasco / Irati Saizar
Anoeta / Zizurkil

Azokaz betetako asteburua izan da eskualdean. XIV. Euskal Jaia ospatu dute Anoetan eta igandean baserritar eta artisauen azoka egin zuten. Eta Zizurkilen, berriz, XXIII. Azoka Berezia ospatu zuten igandean.

Anoetan, 25 postuk bete zuten plaza, eta askok lehen aldiz hartu zuten parte azoka horretan. Horren adibide izan ziren Niko Castro anoetar hargina edota oihalekin egindako lanen sortzailea den Ainhoa Etxarri anoe-

tarra. Ekoizleen artean, Artamugarriko barazkiek izan zuten lehenengo aldia, eta esperientzia luzeagoa duten Anoetako Sarobe baserrikoek ere hartu zuten parte, beren barazki eta esneki ekologikoekin. Artisan postuen artean, lehen aldia izan zuten Luhei eta Artilezko hodeiak artisauek, eta baita Villabonako Amlu Studioak ere. Eskualdeko Kaori faktoriak, Anoeta bertako Otero pilotagileak eta Tolosako Bidatz Sasianen postuak ere izan ziren, baita Amezketako Eguzkileire ere

Trikiti, pandero eta dultzaina



Eguraldia lagun, plazan jarri zituzten azokako postuak Anoetan. L.C.



Musikarien laguntzaz, dantza egin zuten herriko dantzariak Anoetan. L.C.



Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan jarri zituzten beste hainbat postu. L.C.

doinuek alaitu zuten goiza, eta izan zen dantzara animatu zenik ere. Eguerdian, norberak eramandako jakiekin bazkari herrikoia egin zuten frontoian. Eta arratsaldean, berriz, binakako pentatloi saioaz gozatu zuten bertaratu zirenek.

35 POSTU ZIZURKILEN

Zizurkilen ere punta-puntako giroarekin pasatu zuten igande goiza. 35 postu elkartu ziren guztira, eta lau gunetan banatu zituzten. Zimiterioan bost postu jarri zituzten eta tartean izan ziren San Millan eskolakoak. Azokan lortutako etekinak El Salvadorreko Segundo Montes komunitateko El Barrial eskolara bideratuko dituzte.

Pello Mari Otaño plazan eta Teodoro Hernandorena kalean jarri zituzten elikagai postuak, eta, plazan bertan, taloak dastatzeko aukera izan zen. Baserriko produktuak izan ziren nagusi, baina bertan izan ziren ere Zizurkilen ekoiztako sagardo berria edota eskualdeko Iparrabeer artisau garagardoa.

Tabernatik tabernara ibiltzeko ohitura badute ere, oraingoan azokan murgildu da Iparrabeer garagardoa. Pandemia garaian, duela urte eta erdi inguru, Borja de la Iglesia irurarrak eta Iñaki Aranburu eta Iñaki Murillo ibarretrek abiatu zuten proiektua da, hain zuzen. «Orain hasi gara azoka munduan sartzen eta jendea gehiago ezagutzen. Tabernetan nahiz eta nahikoa zabaldu, oraindik ez gaituzte guk nahi adina ezagutzen. Aitzaki horrekin animatu gara, eta hemen beste publiko mota bat aurkitu dugu», azaldu du hirukoteak.

Intxaur frontoia artisauen babesleku izan zen. Egur-lanak, bitxiak eta arropak izan ziren, besteak beste, frontoiko protagonista. Goiz guztian zehar, gainera, burdin lanak egiten dituzten artisauen jarduna bertatik bertara ikusteko aukera izan zen. Baina ez da zuzenean ikusi ahal izan zen jardun bakarra izan, postu ezberdinetako artisauek ere tarte txiki bat izan baitzuten euren lanak aurrez aurre jartzeko.

Horren adibide izan zen zeramika tailerreko irakaslea den Rosa Etxabe, urriaren 26rako duen eskaera aurreratu baitzuen Zizurkilen. Hain justu, Olentzero eta Mari Domingi pertsonaiak egin zituen zeramikarekin. Lehen aldia izan zen bere lana Durangotik Zizurkilera ekarri zuena, eta oso pozik eta gustura zegoela adierazi zuen «halako herri txiki bateko azokan parte hartu eta bultzatzeagatik».

Herritarrek 30 urteko ibilbidea ezagutu dezaten

‘Galtzaundi’ aldizkariaren 0 zenbakia argitaratu zela hiru hamarkada bete direla gogoratzeko erakusketa prestatu du Galtzaundi Euskara Taldeak

Josu Artutxa Dorronsoro

1991ko maiatzaren 26an argitaratu zen *Galtzaundi* aldizkariaren 0 zenbakia. Sortu berria zen Galtzaundi Euskara Taldea eta euskaltzale elkarteak abiarazita-ko lehen proiektu garrantzitsuetakoa izan zen eskualdeko albisteak bilduko zituen hilabete-karia martxan jartzea. Aldizkaria hasi zen Tolosaldeko berriak lantzen, inguruko herrietako gertakizunei eta protagonistei orrialdeak eskaintzen; euskaratik eta euskaraz.

Horren gertuko ditugun tokiko komunikabideen aitzindaria izan zen *Galtzaundi* aldizkaria. Eta duela 30 urteko efemeride hura gogorarazteko, aldizkariaren historia jasotzen duen erakusketa prestatu du euskara taldeak. Bertan jasotzen dira hedabidearen hastapenak, historia, bitxikeriak, lorpenak, eta beste zenbait xehetasun. Erakusketa ibiltaria izango bada ere, oraingoz Tolosako Aranburu jauregian egongo da ikusteko aukera, urriaren 23ra bitarte.

Erakusketa herritarrei gerturatzeko eta euskara elkartearen eta aldizkariaren lanetan aritu direnak ere elkartzeko asmoz, inaugurazio ekitaldia egin zen asteazkenean. Lehenik, Galtzaundi Euskara Taldeko lehendakari Kike Amonarrirek hartu zuen hitza: «Galtzaundi kaleratu zen lehenengo urtean aldizkari bat egitea zer zen ere ez genekien, baina ikusten genuen Tolosaldeak euskarazko hedabide bat behar zuela eta talde hark ilusioz, militantziaz eta gogoz ekin zion erronkari. *Galtzaundi*-ren lehen

zenbakia atera eta aldizkariak aro berri bati ekin zion».

Bestetik, aldizkariaren hastapenetan egon zen Joxemi Saizarrek ere hitz egin zuen. Tolosarra ederki oroitzen da *Galtzaundi*-ren lehen urteez: «Aldizkariarekin hasi ginenean ez genuen baliabiderik, ez grabagailurik ezta mugikorrik ere. Idazmakina idazten genuen eta ondoren ordenagailura pasatzen zuten berriz. Pleistozenoz hitz egiten ari naizela ematen du baina hau guztia ez zen orain duela horrenbeste pasa».

ESKUALDEAREN AHOTSA

TOLOSALDEKO ATARIA-ko koordinatzaile Rebecka Calvok, 28 Kanaleko ordezkari Oinatz Martinezek eta *Aiurri*-ko kazetari Jon Ander Ubedak ere adierazpenak egin zituzten euskarazko tokiko hedabideen izenean. Tokiko hedabideak «garai ona» bizitzen ari direla esan zuen Ubedak. «Euskaratik eta euskaraz profesionaltasunez lan egiten duten erreferentziazko hedabideak gara», nabarmendu zuen Calvok. Azkenik, «eskualdeko herritarrei mezezi duten informazioa ematen jarraitzeko gogo» dutela adierazi zuen Martinezek, eta informazio hori «gertukoa, kalitatezkoa eta sinesgarria» izan behar dela esan zuen *Aiurri*-ko kazetariak.

Azken hamarkadetan, aldaketa ugari izan dira euskarazko komunikabideen munduan; hainbat hedabide berri sortu dira, tartean, aipatutako hirurak. Hain zuzen, eskualdean gertatzen dena paperean, irratan edota telebistan kontatzen jarraitzen dute hirurek.



Galtzaundik argitaratutako 297 zenbakietako azalak biltzen dituen horma ikus daiteke erakusketaren sarreran. J.A.



Erakusketako gainerako paneletan aldizkariaren ibilbidea ezagutu daiteke. J.A.



Inauguraziora hurbildutako herritarrak, Jon Ander Ubedaren hitzak entzuten. J.A.

‘ZIMURRAK’ BILDUMA, URRIKO IRAKURLE TALDEAN

Erakusketa bisitatzeaz gain, eskualdeko euskaltzaleek beste hitzordu bat dute urrian, kasu honetan, Galtzaundi Euskara Taldearen irakurle taldearekin. Hilaren 21ean izango da hurrengo saioa, Tolosako kultur etxean, 19:00etan. Paco Rocak 2014an argitaratu zuen *Zimurra* komikiaren inguruan hitz egingo dute, eta ohiko moduan, Yurre Ugartek dinamizatuko du.

Orain arte komikietan gutxi jorratutako gaiak landu ditu Rocak *Zimurra* lanean, besteak beste, Alzheimer gaitza eta zahartzaroko dementzia. Sinesgarria da narrazioa, dokumentazio lan zorrotzaren ondorioz, gertuko eta senitartekoen pasadizoak bildu zituelako. Album honek Komikiaren Sari Nazionala bereganatu zuen 2008an; zinemarako egokitzapenak, berriz, bi Goya sari lortu zituen.

Hitzorduan parte hartzeko aurrez eman behar da izena. Horretarako, Galtzaundiren bulegora gerturatu (Nafarroa Etorbidea 6, Tolosa), galtzaundi@galtzaundi.eus helbide elektronikora mezu bat bidali edo 943 655 004 telefono zenbakira deitu behar da.

Altuna III.aren ondoren Jakaren txanda, gaur



Jokin Altuna eta Aitor Elordiren arteko partida igandean, Eibarko Astelena pilotalekuan. JOSU ARTUTXA

Erik Jakak Tolosako Beotibarren jokatu du lau eta erdiko txapelketako lehen partida

Asier Imaz

Erik Jakaren eta Mikel Urrutiko-etxearen arteko partidak itxiko du lau eta erdiko txapelketako lehen jardunaldia, final-laurdenetako ligaxkari dagokiona. Tolosako Beotibar pilotalekuan neur-tuko dituzte indarrak, gaur, 17:00etan hasiko den jaialdian. Aurrez, Victor-Tolosa eta Artola-Arangurenen arteko partida jokatu da. Jaialdia amaitzeko, Bakaikoa-Aretxabaleta eta Salaberria-Etxebarria irtengo dira kantzara.

JOKIN ALTUNA, 22-17

Altuna III.ak txapelketako lehen partida igandean jokatu zuen, Eibarren. Amezketarrak 22-17 irabazi zion Aitor Elordiri. Bizkaitarra, ligaxkako partidara, aurrez bi norgehiagoka irabazita iritsi zen. Egungo lau eta erdiko txapelduna, aldiz, partidarik jokatu gabe. Ez zen alderik nabaritu, ordea, Altuna III.a 9-1 aurretatu baitzen hasieran. Errentari bikain eutsi zion partidaren lehen zati horretan amezketarrak, 14-10 jarritz. Sakearekin eta errematearekin maisu ibili zen txapelduna.

Lehiaren bigarren zatian, ordea, Elordik lehen mailako pilotaria dela erakutsi zuen. Jokin Altuna estu hartzeaz gain markagailua berdintzetik gertu izan zen bizkaitarra, 18-17koan. Opari argia egin zion une horretan

amezketarrari, eta honek, okerrren zen unean, txapeldunaren izaera agertu zuen eta azken lau tantoak jarraian egin zituen. Azpimarratzekoa izan zen Jokin Altunaren 20. tantoa, horma biko dotore batez amaitu zuena. Harmailetara zoramena ekarri zuen, eta izan zen txapela kantzara bota zuenik.

Sufrituz baina garaipenarekin hasi du txapelketa Altuna III.ak, eta garrantzitsuena, fisikoki hurrengo partidarako arazorik gabe.

BIGARREN JARDUNALDIA

Ligaxkako bigarren jardunaldia hurrengo asteburuan jokatu da. Jokin Altunak larunbatean jokatu du bere partida, Peio Etxeberriaren aurka. Lehia hori Bergarako pilotalekuan izango da, 17:15ean hasiko den jaialdian barruan.

Eskualdeko beste ordezkariak, Erik Jakak, bigarren jardunaldiko partida berriro Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu du, astelehenean. Bere aurkaria oraindik zehaztu gabe dago. Gaur irabaziz gero, Joseba Ezkurdia izango du aurrean urriaren 18an. Urrutikoetxea nagusituko balitzaio, lizartzarrak Lasoren aurka neurtuko ditu indarrak bigarren jardunaldi horretan. Jaialdi hori 16:30ean hasiko da. Pilotak, urriaren 14an aukeratuko dituzte Beotibarren, 11:00etan.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko irailaren 20an, besteak beste, ondoren jasotzen den erabakia hartu zuen:

Hasierako onespena ematea Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 6.1 San Kosme eta San Damian azpiesparruko urbanizazio proiektuari.

Espedientea jendaurrean egongo da, HOGEI egunez, alegazioak egin ahal izateko, azken argitaratzea egin eta hurrengo egunetik aurrera.

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2021eko urriaren 6an, 192. alean.

Tolosan, 2021eko urriaren 6an
Alkatea
Olatz Peon Ormazabal

KIROLEMAITZAK

Areto futbola		
BIGARREN B MAILA		
4. jardunaldia		
Juventud del Circula Cat.	4	
Lauburu Ibarra	3	
Sailkapena		
1. Tafa	12p	
2. Escuelas Ciu. Guadalajara	9p	
3. Otxartabe	8p	
4. San Juan	8p	
5. Zierbena	7p	
6. Pinseque	6p	
7. Villa de Quel	6p	
8. Patatas Gomez Sala	6p	
9. Dehesa Villalba	6p	
10. Lauburu Ibarra	5p	
11. Mahastiak Labastida	5p	
12. Anaitasuna	4p	
13. Colo Colo	4p	
14. Juventud del Circulo Cat.	3p	
15. Tauste	1p	
16. Ibararte	0p	
Hurrengo jardunaldia		
Lauburu (10) – Colo Colo (13)		
HIRUGARREN MAILA		
4. jardunaldia		
Gernikako Lagunak	4	
Tolosala	2	
Laskorain	3	
Antiguoko	3	
Sailkapena		
1. Aurrera de Vitoria	9p	
2. Eskoriatza	9p	
3. Afantxo	8p	
4. Laskorain	7p	
5. Tolosala	7p	
6. Mondrate	6p	
7. Almi Elorrietako	6p	
Hurrengo jardunaldia		
Laskorain (4) – Elorrioko (12)		
Antiguoko (10) – Tolosala (5)		
Eskubaloia		
EUSKAL KOPA		
3. jardunaldia		
Egia	26	
Tolosa CF Eskubaloia	28	
Futbola		
HIRUGARREN MAILA		
7. jardunaldia		
Tolosa CF	2	
Cultural Durango	0	
Sailkapena		
1. Alaves B	19p	
2. Cultural de Durango	16p	
3. Anaitasuna	14p	
4. Portugalete	13p	
5. Santutxu	12p	
6. Pasaia	12p	
7. Aurrera	12p	
8. Barakaldo	10p	
9. Basconia	9p	
10. Vitoria	9p	
11. Beasain	9p	
12. San Ignacio	9p	
13. Amurrio	7p	
14. Leioa	7p	
15. Beti Gazte	7p	
16. Lagun Onak	7p	
17. Urduliz	7p	
18. Deusto	5p	
19. Tolosa CF	4p	
20. Uritarra	3p	
Hurrengo jardunaldia		
Anaitasuna (3)		
Tolosa CF (19)		
LEHEN MAILA NAZIONALA		
5. jardunaldia		
Oiartzun	1	
Tolosa CF	1	
Sailkapena		
1. Arratia	12p	
10. Tolosa CF	4p	
Hurrengo jardunaldia		
Tolosa CF (10)		
Arratia (1)		
ERREGIONAL OHOREZKO MAILA		
4. jardunaldia		
Tolosa CF	0	
Beti Gazte	2	
Sailkapena		
1. Lagun Onak	10p	
12. Tolosa CF	1p	
Hurrengo jardunaldia		
Bergara (7)		
Tolosa CF (12)		
GORENGO MAILA EMAKUMEAK		
4. jardunaldia		
Intxurre	2	
Zestoa	7	
Hurrengo jardunaldia		
Golierri Gorri (2)		
Intxurre (8)		
GORENGO MAILA GIZONAK		
5. jardunaldia		
Billabona KE	3	
Hernani	2	
Tolosa CF	2	
Astigarragako Mundarro	0	
Hurrengo jardunaldia		
Zumaiako (1)		
Tolosa CF (2)		
Hernani (8)		
Danena (11)		
Orioko (3)		
Billabona (9)		

2021 denboraldi hasierako futbol festa, hilaren 13tik 17ra

Asteazkenean Zuhaitz Gurrutxagaren 'Futbolistok' bakarrizketa izango da eta asteburuan 4x4 futbol festa; klubeko taldeen aurkezpenak ere egingo dituzte

Billabona FKE

Amasa-Villabona

Futbola Arratzaindik herrira jaitsi eta herritarrei hurbiltzea da denboraldi hasierarako Billabona FKE-k antolatu duen futbol festaren helburu nagusia. Denboraldi berrian federatuen zortzi talde izango dira jokatzeko maila ezberdinetan eta futbol eskolan, berriaz, 130 ikasle inguru. Urriaren 13tik 17ra egingo den Futbol Festarekin jokalariek guztiak aurkeztuko dituzte.

Bihar arratsaldean, Zuhaitz Gurrutxagarene bakarkako bigarren lana den *Futbolistok* izango da ikusgai. Ikuskizun honetan, futbolari baten «konfidentziak», eta umorez beteriko hainbat esperientzia kontatuko ditu. Gurea antzokian izango da emanaldia, 19:00etan, eta sarrerak aurrez *online* edo egunean bertan Gurea antzokiko leihatilan eskura daitezke.

EKITALDINAGUSIA

Larunbatean txikienean 4x4 Futbol Festan gozatzeko aukera izango dute. 09:30ean hasita Errebote plazan egongo diren bi zelaitan jokatuko dira partidak eta finalak 18:30ean izango dira. Parte hartzaileen artean Amasa-Villabonako Oria merkataria elkartea emandako hainbat produkturen zozketak egingo dira.

Lehiaketan 5 urtetik 11 urte bitarteko herriko nahiz inguruko



4X4 futbol txapelketa, Tolosako Larramendi auzoan. JON MIRANDA

herrietako haurrek parte har dezakete. Horretarako aurrez izena eman beharko da Basajaun liburu dendan, Eizmendi kirol denda, Kazetarian, Albisu kirol denda edo *online* inprimakian. Parte hartzeko baldintzak eta araudia bertan irakur daitezke.

TALDEEN AURKEZPENAK

Larunbatean, 12:30ean, Billabona FKE osatzen duten jokalariek guztien taldekako aurkezpen ekitaldia ospatuko da Errebote plazan. Zortzi talde federatu izango dira aurtengoan.

Azkenik, larunbat arratsalde

eta igande goizean zehar federatuen partidak jolastuko dira Arratzain futbol zelain.

Billabona FKE-ren helburua taldea herrira hurbiltzea denez, herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte ekitaldietan parte hartu eta futbolaz gozatzera.

Eukene Larrartek bosgarren postu bat lortu du European

Pista estaliko txirrindularitza txapelketa jokatu da Suitzako txirrindulari tolosarra bertan izan da

Erredakzioa Tolosa

Eukene Larrarte Europako Pista Txapelketan lehiatu da, Suitzako Grenchen hirian. Posturik onena lehen egunean lortu zuen Tolosako txirrindulariak. Kanporaketa proban bosgarren egin zuen Larrartek, sasoi bikaina erakutsiz. Ondorengo egunean, ordea, omnium proban ez zen hain fin ibili. Scratch-ean 12. postua lortu zuen, *tempo race* modalitatean 17.a eta kanporaketa 12.a. Guz-tira 45 puntu pilatu zituen tolosarrak, sailkapen nagusian 14. postuan amaitzeko.

Atsedean hartzeko denbora handiegirik gabe, hirugarren lehia egunean, jazarpen probaren txanda izan zen. Tolosarrak lehen hogehiren artean sailkatzea lortu zuen, 17. postua eskuratuz.

Azken proba madison-ekoa izan zen Eukene Larrarterentzat. Tania Calvorekin osatu zuen bikotea lasterketa honetan, eta hamaikagarren helmugaratzea lortu zuten.



Eukene Larrarte. ATARIA

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€ • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

AXIER MUXIKA IZAGIRRE

3. URTEURRENA
2021-10-07





ASTEARTEA, 2021EKO URRIAK 12
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Gazte nahiz helduei zuzendutako ekitaldiz betetako asteburua izan dute Berazubi auzoan, eta gaur emango diete amaiera festei; paella erraldoia jateko elkartuko dira auzokideak bazkarian

Gaur erreko dute arratoia

Leyre Carrasco Tolosa

Asteburu luzearekin egokitu ohi dira Berazubiko jaiak, eta ohiko moduan ospatu ez badira ere, hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izan da. Larunbatean, esaterako, Lander Cornago, Tais Da Silva eta Pau Rius Basque Culinary Centerreko ikasleek gazteak sukaldaritzan murgiltzeko tailerra zuzendu zuten, eta oso gustura zeuden ekimenarekin: «Gure ustez oso garrantzitsua da txiki txikitatik kozinatzen ikastea», esan zuten. Ijito-besoa prestatzen erakusten aritu ziren, «haurrentzat oso erraza, polita, tradizionala eta ikusgarria delako». Tailerrera gerturatu zirenak «ikasteko gogoz» zeudela nabarmendu zuten.

Igandean, berriz, lehiaketa bixian parte hartu zuten auzokideek. Hain justu, txapela nork urrutien jaurti aritu ziren Berazubiko zelaian.

GAUR, AZKEN EGUNA

Gaur amaituko dira Berazubiko festak. Eguerdian emakumezkoen toka izango da, eta 14:00etan paella erraldoia dastatuko dute. 16:30ean, Pancho Balbuena izango da, 19:30ean areto dantzak, 21:00etan txistorra jatea egingo dute, eta amaitzeko, 21:30ean arratoia erreko dute.



Goian, gazteak sukaldian, eta behean txapela jaurtitzeko. LEYRE CARRASCO

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Tolosako XXXIII herri krosa, San Esteban auzoan, 11:00etan. Ondoren, VI. elkartasun txiki krosa, bi kategoriatan banatuta, 9 urtera arte (500 m) eta 14 urtera arte (1.250 m).
Tolosa. Berazubiko festak: 12:00: emakumezkoen toka; 14:00: paella erraldoia; 16:30: Pancho Balbuena; 19:30: areto dantza; 21:00: txistorra jatea; 21:30: arratoia erretzea.

Zinema

Tolosa. Space Jam: aro berriak filma, Leidorren, 17:00etan.
Tolosa. Descarrilados filma, Leidorren, 19:00etan.

Erakusketak

Tolosa. Oskar Tenaren Ondar, harri tazerua, 3 tabernan.
Tolosa. Tolosan, koronabirusaren hila beteetan, Aranburu jauregian.
Tolosa. Galtzaundi aldizkariak 30 urte, Aranburu jauregian.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Euskal musika.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
19:00. Elkarriketap (Aritz Harregui)
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Ateller

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Leire Andres Morant. Zaballarreta Lorategiak, 1. 943 67 38 49.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro eguzkitsua izango dugu. Goizeko behe-lainoa altza ostean, zeruan urdina nagusituko da. Tarteka behehodeiren bat edo beste agertuko da, batez ere, azken orduetan, baina inolako garrantzirik gabe. Haizeak goizean aldakor joko du, arratsaldean aldiz ipar-ekialdetik. Tenperatura antzeko balioetan mugituko da, 18-19 graduan joz goia.

Bihar. Oso antzeko eguraldia izango dugu berriro ere. Goizean behe-lainoa agertuko da, baina goiz erdirako jasoko du eta egun osoan zehar eguraldi eguzkitsua nagusituko da. Haizeak ekialdetik joko du eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da. Maximoak, beraz, aurreko egunetakoak izango ditugu, 18-19 graduan geratuko direlarik.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

Prezioa

15,50€
31€
45€
51€

Atarikideak

12€
23€
33€
38€

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20

Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez